
	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024	1 / 9

Artikulua Artículo		Orrialdea Página
1	DEFINIZIOA	<i>DEFINICION</i>
2	IZENEMATEAK	<i>INSCRIPCIONES</i>
3	LEHIAKETA SISTEMAK, JANZKERA ETA MATERIAL HAUT.	<i>SISTEMAS DE COMP., INDUMENTARIA Y SEL. DE MATERIAL</i>
4	EPAILEAK	<i>JUECES</i>
5	AKTAK ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA	<i>ACTAS Y NOTIFICACION DE RESULTADOS</i>
6	PILOTARIEN EGIAZTARIA	<i>ACREDITACION DE LOS/AS PELOTARIS</i>
7	JOKATZEKO BALEKO EGUTEGIA	<i>HORARIO HABIL DE COMPETICION</i>
8	PARTIDEN PROGRAMAZIOA	<i>PROGRAMACION DE PARTIDOS</i>
9	ALDAKETAK EGUTEGIAN	<i>CAMBIOS EN EL CALENDARIO</i>
10	SAILKAPENAK ETA ZIGORRAK	<i>CLASIFICACIONES Y SANCIONES</i>
11	ERREKLAMAZIOAK	<i>RECLAMACIONES</i>
12	LEHIAKETA ETA DIZIPLINARI BURUZKOAK	<i>ASPECTOS COMPETICIONALES Y DISCIPLINARIOS</i>

<p><u>1 – DEFINIZIOA</u></p> <p>Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa eskuz binaka (kadete, jubenil eta nagusietan), palaz (larruzko paleta eta pala motza), zesta puntaz (kadete, jubenil eta nagusietan) eta gomazko paletaz (banaka kantxa osoan, binaka eta banaka 7 barruan) ospatuko da.</p> <p>Antolaketaz Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa (GEPF aurrerantzean) arduratuko da eta, maila orokorrean, Euskadiko Euskal Pilota Federazioak (EPPF aurrerantzean) argitaratu araudiaz zuzenduko da eta, maila espezifikoa, araudi honetaz.</p> <p>Txapelketa honetan Gipuzkoako herri guztiek hartu ahal izango dute parte, eta bakoitzak bere Udalerrriaren izenean soilik egingo du gainera, izen-ematez herri bakoitzeko Euskal Pilotako delegatua arduratuko delarik.</p>	<p><u>1 – DEFINICIÓN</u></p> <p>El Campeonato de Gipuzkoa Interpueblos se celebrará en las especialidades de Mano (Mano parejas cadete, juvenil y senior), Pala (Paleta cuero y Pala corta), Cesta Punta (cadete, juvenil y senior) y Paleta goma (individual en toda la cancha, por parejas e individual dentro del 7).</p> <p>Su organización correrá a cargo de la Federación Gipuzkoana de Pelota Vasca (FGPV en adelante) y se registrá, a nivel general, por el Reglamento de Juego de la Federación de Pelota Vasca de Euskadi (FPVE en adelante) y, a nivel específico, por este reglamento.</p> <p>Podrán tomar parte en este Torneo la totalidad de los pueblos guipuzcoanos, quienes participarán única y exclusivamente en nombre del Municipio respectivo, responsabilizándose de las inscripciones el delegado o la delegada local de Pelota Vasca.</p>
<p><u>2 – IZENEMATEAK</u></p> <p>Izen-ematea dagokion inprimaki ofizialean egin beharko da. Bertan pilotari guztien izena, abizena eta lizentzia zenbakia idatzi beharko dira. Ezarritako epeetan izen-emandako pilotariak baino ez dira onartuko. Salbuespen bat onartuko da: izena eman duen pilotari batek lesio larri bat izango balu eta horrek herriaren parte hartzea ezinezkoa egingo balu, lizentzia berri bat atera eta azken pilotari hori izen-ematean eransten utziko da. Edonola ere, pilotari berri horrek partaideen auzotasun administratiboari buruzko 2B atala bete beharko du.</p> <p>Azkenik, pilotarien izenekin batera, norgehiagokak zein pilotalekutan jokatu diren adierazi beharko da. Ezingo da beste inongo frontoietan jokatu, instalazio arazoak tarteko ez bada eta arazo hauek etxeko taldeari ez badagozkio. Aldaketaren beharra ziurtatzeko, instalazioaren gerentzia</p>	<p><u>2 – INSCRIPCIONES</u></p> <p>La inscripción deberá de realizarse en el impreso oficial correspondiente. En ella se deberá de anotar el nombre, apellidos y nº de licencia de todos los pelotaris. No se admitirá pelotari alguno que no haya sido inscrito en los plazos establecidos, salvo en el caso de que algún pelotari inscrito se lesione de gravedad y esta lesión impida a la localidad tomar parte en la competición. En dicho caso, se permitirá tramitar una nueva licencia e inscribir a dicho pelotari, que deberá de cumplir el apartado 2B, referente a la vecindad administrativa.</p> <p>Por último, junto a los pelotaris también deberá de indicarse el nombre del frontón donde se van a disputar los partidos. No sé podrá jugar en ningún otro frontón del señalado a tal efecto salvo causas de instalación ajenas al equipo de casa. Para certificar la necesidad del cambio se deberá de</p>

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	2 / 9

daraman pertsonak sinatutako dokumentu ofiziala aurkeztu beharko da.

2a – Partaideen nortasuna

Izena emandako pilotari guztiek EEPFek denboraldirako luzatutako lizentziaren jabe izan beharko dute. Izena ematerakoan ez da inongo pilotari kopuru mugarik izango.

Pilotariak adinagatik dagokien kategorian edo goragoko batean har dezakete parte (eskuan hurrengoan, soilik). Goragoko kategorian behin jokatzuz gero bertan mantendu beharko dute lehiaketa bukatu arte.

KADETE kategorian, denboraldiko errendimenduko lizentzia duten 2. urteko infantilak inskribatu ahal izango dira.

Pala eta gomazko paletako txapelketan kategorio bakarra egongo da, kadetek aurrera, hauek barne.

Txapelketa honetan profesional ohiek parte hartu ahal izango dute. Bete beharko duten baldintza bakarra herrien izena emateko epea amaitu baino urtebete lehenagotik afizionatu lizentzia izatea izango da.

Pilotari batek ezingo du jokatu bi jokamoldetan jardunaldi berean, baina bai, ordea, jardunaldi desberdinetan; horretarako jokamolde horietan guztietan eman beharko du izena.

Era berean, pilotari batek ezingo ditu jokamolde bereko (eskua, pala, zesta punta edo gomazko paleta) bi norgehiagoka jokatu jardunaldi berean.

2b – Partaideen auzotasun administratiboa

Txapelketa honetan parte hartu ahal izateko, pilotariak ordezkatzeko duen udalerrian AUZOTASUN ADMINISTRATIBOA izan beharko du, nahitaezko iazareekin. Era berean, auzotasun hau herrien izena emateko epea amaitu baino urtebete lehenagokoa izan beharko du, gutxienez.

Hala eta guztiz, auzotasun-aldaketak direla medio, pilotari batek ezingo balu auzotasunari dagokion udalerrira ordezkatu urtebeteko antzinatasuna ez izateagatik, udalerrira zaharra ordezkatu dezake; nolahi ere, azken kasu honetan, udalerrira honetan auzotasun administratiboa gutxienez urte beteko antzinatasunez izan beharko du.

presentar un documento oficial firmado por la persona responsable de la gerencia de la instalación.

2a – Identidad de los participantes

Todos los pelotaris inscritos deberán estar en posesión de la licencia federativa en curso, emitida por la FPVE. No habrá límite máximo de inscripción de pelotaris.

Se podrá participar en la categoría que por edad corresponda o en alguna superior (en mano sólo en la inmediatamente superior). Una vez de haber tomado parte en la categoría superior deberá de mantenerse en la misma hasta el fin del torneo.

Los infantiles de 2º año que posean licencia de rendimiento podrán ser inscritos en la categoría de CADETES.

En las especialidades de pala y paleta goma, habrá una única categoría que comprenderá de cadetes, inclusive, en adelante.

Se admitirán pelotaris ex-profesionales siempre y cuando posean licencia federativa de aficionado con al menos un año de antigüedad al plazo máximo de inscripción de localidades en el campeonato.


Un pelotari no podrá jugar en dos especialidades en la misma jornada, si pudiendo hacerlo en jornadas distintas, para lo cual deberá de haberse inscrito en ellas.

Asimismo, un pelotari no podrá jugar dos partidos de la misma especialidad (mano, pala, cesta punta o paleta goma) en una misma jornada.


2b – Vecindad administrativa de los participantes

Para participar en este campeonato el pelotari debe de tener, con carácter obligatorio, la VECINDAD ADMINISTRATIVA en el Municipio al que represente con al menos un año de antigüedad al plazo máximo de inscripción de localidades en el campeonato.


No obstante, lo anterior, en los supuestos que, debido a un cambio de la vecindad, el pelotari no pudiera representar al pueblo del que es vecino por no contar con el año de antigüedad, podrá representar al antiguo, siempre que cumpla el requisito de tener, cuanto menos, un año de antigüedad en esta localidad.

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	3 / 9


<p>Derrigor bete beharreko baldintza izango da, izenematearekin batera dagokion udaletxearen agiria aurkeztea, bertan ziurtatuz izena emandako pilotari guztiek betetzen dutela artikulua honetan auzotasun administratiboari buruz agindutakoa.</p> <p>Ez da zesorik onartuko.</p>	<p>Será condición indispensable adjuntar a la inscripción un certificado del ayuntamiento correspondiente donde se certifique que TODOS los pelotaris inscritos cumplen con el requisito de vecindad administrativa mencionado en este artículo.</p> <p>No se permitirán cesiones.</p>
<p><u>3 – LEHIAKETA SISTEMAK, JANZKERA ETA MATERIAL HAUTATZAILEAK</u></p> <p><u>3a – Lehiaketa sistemak</u></p> <p>Espezialitate bakoitzean hiru herri beharko dira, gutxienez, txapelketa antolatu ahal izateko.</p> <p><u>MANO:</u> Fase bakarra ospatuko da, kanporaketa moduan. Kanporaketa guztiak, finala salbu, joan-etorrikoak izango dira. Eskuko kanporaketak osatzeko, baldintzatutako zozketa egingo da, zerrenda buruak izendatuz aurreko txapelketako azken sailkapenean oinarrituz.</p> <p><u>PALA:</u> Fase bakarra ospatuko da, kanporaketa moduan. Kanporaketa guztiak, finala salbu, joan-etorrikoak izango dira.</p> <p><u>ZESTA PUNTA:</u> Zesta-puntako lehiaketa sistema izena emanda dagoen herri kopuruan oinarrituz antolatuko da.</p> <p><u>GOMAZKO PALETA:</u> Fase bakarra ospatuko da, kanporaketa moduan. Kanporaketa guztiak, finala salbu, joan-etorrikoak izango dira. Gomazko paletako kanporaketak osatzeko, baldintzatutako zozketa egingo da, zerrenda buruak izendatuz aurreko txapelketako azken sailkapenean oinarrituz.</p> <p><u>3b – Janzkera</u></p> <p>Txapelketako norgehiagoka guztietan jokatzeko erabiliko diren poloak antolakuntzak hasi aurretik banatuko dituenak izan beharko dute ezinbestean.</p> <p>Gainontzeko janzkera EEPFeren joko araudiak agindutakoari jarraituko zaio.</p>	<p><u>3 – SISTEMAS DE COMPETICION, INDUMENTARIA Y SELECCIONADORES DE MATERIAL</u></p> <p><u>3a – Sistemas de competición</u></p> <p>En todas las especialidades será necesario un mínimo de tres localidades inscritas para que se celebre el campeonato.</p> <p><u>ESKUA:</u> Se celebrará una única fase. Esta se disputará en forma de eliminatorias a doble vuelta, salvo la final, que se disputará a una vuelta. Para la confección de las eliminatorias de mano se realizará un sorteo dirigido en el que se designarán cabezas de serie en base a la clasificación final de la temporada anterior.</p> <p><u>PALA:</u> Se celebrará una única fase. Esta se disputará en forma de eliminatorias a doble vuelta, salvo la final, que se disputará a una vuelta.</p> <p><u>CESTA PUNTA:</u> El sistema de competición de cesta punta se diseñará en base al número de localidades inscritas.</p> <p><u>PALETA GOMA:</u> Se celebrará una única fase. Esta se disputará en forma de eliminatorias a doble vuelta, salvo la final, que se disputará a una vuelta. Para la confección de las eliminatorias de paleta goma se realizará un sorteo dirigido en el que se designarán cabezas de serie en base a la clasificación final de la temporada anterior.</p> <p><u>3b – Indumentaria</u></p> <p>Los polos de juego a utilizar en los partidos por todos los pelotaris serán, indispensablemente, los aportados al comienzo de campeonato por la organización.</p> <p>Para el resto de indumentaria, se atenderá al reglamento general de juego de la FPVE.</p>

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	4 / 9

<p><u>4 – EPAILEAK</u></p> <p>GEPF arduratuko da txapelketako jaialdi guztietako epaileen izendapenez.</p>	<p><u>4 – JUECES</u></p> <p>La FGPV será la responsable de la designación de jueces para todos los festivales del campeonato.</p>
<p><u>5 – AKTAK ETA EMAITZEN JAKINARAZPENA</u></p> <p>Aktak PILOTARI app-aren bidez epaile-lanak egiteko izendatutako pertsonak edo klubak kudeatuko ditu.</p> <p>App-an norgehiagokaren partida guztien aktak betetzeko epea lehiaketa jardunaldiaren hurrengo astelehenero 10:00etan amaituko da. Epe hori betetzen ez bada eta erantzukizuna etxeko herriarena bada, etxeko taldeari partida guztiak 0 tantotan galdutzat emango zaizkio.</p>	<p><u>5 – ACTAS Y NOTIFICACIÓN RESULTADOS</u></p> <p>La gestión de las actas se llevará a cabo por la persona o club designada para realizar a cabo las labores de juez mediante la app PILOTARI.</p> <p>El plazo límite para rellenar en la app las actas de todos los partidos del enfrentamiento será las 10:00 horas del lunes siguiente a la jornada de competición. En los casos en los que no se cumpla dicho plazo y la responsabilidad recaiga en la localidad local, se le darán todos los partidos por perdidos en 0 tantos al equipo de casa.</p>
<p><u>6 – PILOTARIEN EGIAZTAGIRIA</u></p> <p>Akreditazio modua federazioak emandako lizentzia birtuala da.</p> <p>Lizentzia birtual gisa zera hartuko da: federazio-lizentziaren kopia smartphone, tablet edo antzeko gailu mugikorrean aurkeztutakoa.</p> <p>Partida hasi aurretik, epaile nagusiak taldeetako ordezkariak edo pilotariei federazioko lizentzi birtualak eskatuko dizkie.</p>	<p><u>6 – ACREDITACION DE LOS/AS PELOTARIS</u></p> <p>La licencia federativa virtual es la forma de acreditación.</p> <p>Como licencia virtual se entenderá una copia de la licencia federativa presentada en cualquier dispositivo móvil, tipo smartphone, tablet etc.</p> <p>Antes del inicio del partido, el o la juez principal pedirá a los delegados o las delegadas de los equipos o a los y las pelotaris que le enseñen sus licencias federativas virtuales.</p>
<p><u>7 – JOKATZEKO BALEKO ORDUTEGIA</u></p> <p>Jaialdien hasierako baleko ordutegia ondorengo izango da:</p> <p><u>Ostirala</u> 20:00ak eta 22:00ak artean <u>Larunbata</u> 9:00ak eta 22:00ak artean <u>Igandea</u> 9:00ak eta 17:00ak artean</p> <p>Parte-hartzaileen arteko adostasuna badago, jardunaldiaren hasiera osteguna arte aurreratu ahal izango da, beti ere jaialdiak ondorengo tartetean hasten badira:</p> <p><u>Osteguna</u> 17:00ak eta 22:00ak artean <u>Ostirala</u> 17:00ak eta 20:00ak artean</p> <p>Era berean, jaialdi bat lehiaketa egutegian ezarrita dagoenaren aurreko asteburura aurreratu ahal izango da, beti ere, aste buru horretan bi taldeek ez badute lehiaketa bereko norgehiagokarik eta partida jokatzeko baleko ordutegiaren barruan</p>	<p><u>7 – HORARIO HABIL DE COMPETICION</u></p> <p>El horario hábil para el inicio de los festivales será el siguiente:</p> <p><u>Viernes</u> entre las 20:00 y las 22:00 horas <u>Sábados</u> entre las 9:00 y las 22:00 horas <u>Domingos</u> entre las 9:00 y las 17:00 horas</p> <p>De mutuo acuerdo, se podrá adelantar el comienzo de la jornada hasta el jueves, siempre que el comienzo de los festivales se sitúe en esta franja horaria:</p> <p><u>Jueves</u> entre las 17:00 y las 22:00 horas <u>Viernes</u> entre las 17:00 y las 20:00 horas</p> <p>Del mismo modo, un festival se podrá adelantar al fin de semana anterior a la fecha establecida en el calendario de competición, siempre que los dos equipos contendientes no tengan otro partido de la misma competición ese fin de</p>

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	5 / 9


<p>programatzen bada.</p> <p>Ez da ezinbestekoa izango aurreratze guzti hauen adostasuna azaltzen duen dokumenturik aurkeztea. Nolanahi ere, dokumenturen faltan, eta kanpoko taldeak erreklamatu balu, partida irabazitaz emango zaio azken honi eta etxeko taldearen ez agertzea izango da.</p> <p>Gainontzeko erreklamazio kasuetan, Lehiaketa Epailearen aurrean baleko ordutegizat GEPFeren web orrialdeko kartelera atalean azaltzen dena hartuko da.</p> <p>Herriarteko Txapelketan parte hartzen ari den pilotariren bat GEPFk edo EEPFk antolatutako lehiaketa ofizial bateko final baterako sailkatuta balego, Herriarteko txapelketan etxean jokatzeko dagokion herriak ezingo du lehiaketa horretako jaialdia finala jokatu den egunean programatu.</p>	<p>semana y el partido se programe dentro del horario hábil de competición.</p> <p>No será indispensable presentar documento acreditativo de las conformidades establecidas. En cualquier caso, a falta de documento acreditativo y en caso de reclamación por el equipo visitante, se le dará a éste el partido por ganado y al equipo local se le considerará como incomparecencia.</p> <p>En el resto de los casos de reclamación, el horario de partido válido para el Juez Único de Competición será el que figure en la cartelera de la página web de GEPF.</p> <p>En caso de que algún o alguna pelotari que esté tomando parte en el Torneo Interpueblos se haya clasificado o clasificada para una final de un campeonato oficial organizado por la FGPV o la FPVE, la localidad de casa del Torneo Interpueblos deberá de programar su festival en un día diferente al de dicha final.</p>
<p><u>8 – PARTIDEN PROGRAMAZIOA</u></p> <p>Etxeko taldeari dagokio ordutegia ezartzea eta lehiaketako astearen astearterako, 19:00ak baino lehen programatzea. Programazioa PILOTARI apparen bitartez egin beharko da, ezinbestean.</p> <p>Ordu horretatik aurrera eta asteazkeneko 13:00ak arte egindako programazioak, atzerapenez egindakotzat hartuko dira eta isun ekonomiko bat izango dute. Zenbatekoa denboraldi hasieran jakinaraziko da.</p> <p>Asteazkeneko 13:00etatik aurrera egindako programazioak (edo egin gabekoak) epez kanpokotzat hartuko dira. Ondorioz, epe barruan programatu ez diren norgehiagoka guztietan etxeko taldea agertu izan ez balitz bezala jokatu da.</p> <p>Behin norgehiagoken ordutegia ezarri eta gero, ez da aldaketarik onartuko, instalazio arazoak tarteko ez bada eta arazo hauek herriari ez badagokio. Aldaketaren beharra ziurtatzeko, instalazioaren gerentzia daraman pertsonak sinatutako dokumentu ofiziala aurkeztu beharko da.</p> <p>Norgehiagokaren ordutegiaz informatzea kanpoko taldeari dagokio. Honetarako ohiko bideak erabil ditzake edota GEPFeren web orrialdea kontsultatu.</p> <p>Txapelketarako taldeen izenak eman eta gero, herriak txapelketa zein egunetan ospatuko den badakiela suposatuko da; beraz, herriak dagokion informazioa garaiz jasoko ez balu,</p>	<p><u>8 – PROGRAMACION DE PARTIDOS</u></p> <p>Corresponde al equipo de casa determinar el día y hora para disputar el festival y programarlo antes del martes de la semana de competición a las 19:00 horas. La programación deberá realizarse indispensablemente por la app PILOTARI o por la intranet de la FGPV.</p> <p>Las programaciones que se realicen a partir de esta hora, y hasta el miércoles hasta las 13:00, se considerarán realizadas con retraso y conllevarán, una sanción económica, cuyo valor se notificará a principio de temporada.</p> <p>Las programaciones que se realicen a partir del miércoles a las 13:00 (o no se realicen), se considerarán fuera de plazo y tendrán como consecuencia la pérdida por incomparecencia del equipo de casa de todos los partidos no programados dentro de plazo.</p> <p>Una vez determinados el día y hora de disputa de partidos, no se permitirá el cambio de estos, salvo causas de instalación ajenas a la propia localidad. Para certificar la necesidad del cambio se deberá de presentar un documento oficial firmado por la persona responsable de la gerencia de la instalación.</p> <p>Corresponde al equipo visitante informarse del horario del partido; para ello podrá utilizar las vías habituales o consultar en la página web de la FGPV.</p> <p>Una vez enviada la inscripción para el campeonato se dará por supuesto que la localidad inscrita conoce las fechas en las que se va a desarrollar; así pues, en caso de no recibir la</p>

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	6 / 9


<p>berari dagokio informazio hori eskuratzea eta informazioa ez jaso izanaren aitzakia ez da onartuko baleko arrazoï gisa norgehiagokaren batera ez aurkezteko.</p> <p>Eskua eta zesta puntako norgehiagoken ordenak ondorengoa izan beharko du: kadeteak, jubenilak eta azkenik nagusiak.</p> <p>Palako norgehiagoken ordenak ondorengoa izan beharko du: larruzko paleta eta pala motza.</p> <p>Gomazko paletako norgehiagoken ordenak ondorengoa izan beharko du: banaka kantxa osoan, binaka eta banaka 7 barruan.</p> <p>Joaneko eta etorriko norgehiagoken ordena aldatu ahal izango da, bi herriak ados gonez gero.</p>	<p>información oportuna, corresponde a la localidad informarse de los calendarios y de los cambios de fase y no se admitirá como excusa válida para la incomparecencia el argumento de que estos no se han recibido a tiempo.</p> <p>El orden de los partidos en mano y cesta punta deberá de ser el siguiente: cadetes, juveniles y seniors.</p> <p>El orden de los partidos en pala deberá de ser el siguiente: paleta y pala corta.</p> <p>El orden de los partidos en paleta goma deberá de ser el siguiente: individual toda la cancha, parejas e individual dentro del 7.</p> <p>El orden de la “ida” y la “vuelta” podrá ser variado de mutuo acuerdo.</p>
--	---

<p><u>9 – ALDAKETAK EGUTEGIAN</u></p> <p>Lehiaketa egutegian ez da inolako aldaketarik onartuko. Hau da, norgehiagokak ezinbestean dagokion asteburuko jokatzeko baleko ordutegian ospatu beharko dira.</p> <p>Gipuzkoako edo Euskadiko selekzioaren norgehiagokaren batekin denboran batera suertatuz gero, antolakuntzari ordutegia egokitu edota data aldatzea eskatu ahal izango zaio. Antolakuntzaren esku izango da herrien arteko adostasunerako bideak ezartzea. Nolanahi ere, selekzioetako norgehiagokek ez dute aldaketarako eskubiderik emango.</p> <p>GEPFk onartutako arrazoiengatik (elurra, hezetasuna eta abar) atzeratutako norgehiagokak hurrengo asteazkeneko 22:00ak baino lehenago programatu beharko dira, ezinbestean.</p> <p>Herriei dagokie egun eta ordu berria idatziz adostea eta etxeko elkarteari ordutegi berria ahal bezain pronto GEPFri jakinaraztea. Data berria finkatzeko adostasunik ez balego, hurrengo asteazkeneko 20:30ean ospatu beharko da, derrigorrez; frontoia zein izango den etxeko taldeak erabakiko du.</p>	<p><u>9 – CAMBIOS EN EL CALENDARIO</u></p> <p>No se permitirá ningún tipo de cambio en el calendario de competición. Esto es, los encuentros deberán de disputarse necesariamente dentro del horario hábil de competición del fin de semana señalado a tal efecto.</p> <p>En caso de coincidencia con algún partido de la selección de Gipuzkoa o Euskadi, se podrá apelar a la organización para la adecuación de horarios o el cambio de fechas. Quedará en manos de ésta establecer los cauces para el acuerdo entre localidades. En cualquier caso, los partidos de otras selecciones no otorgarán derecho a cambio</p> <p>En caso de que algún partido sea suspendido por alguna causa aceptada por la FGPV (nieve, humedad en el frontón, etc.), éste se deberá de programar antes del siguiente miércoles a la fecha original a las 22:00 horas.</p> <p>Les corresponde a las localidades acordar por escrito la nueva fecha y al equipo de casa comunicársela a la FGPV, lo antes posible. Si no hubiera acuerdo a la hora de establecer el nuevo horario, el partido en cuestión deberá de programarse, irremediamente, para el siguiente miércoles a la fecha original a las 20:30 horas. Corresponderá al equipo de casa nombrar el frontón.</p>
--	--

<p><u>10 – SAILKAPENAK ETA ZIGORRAK</u></p> <p>Parte hartzen duten talde edo herriek kategoria edota jokamolde guztietan jokatu beharko dute, taldeak bere osotasunean aurkeztuz. Kontrako kasuan, taldearen ez agertzea kontsideratuko da.</p>	<p><u>10 – CLASIFICACIONES Y SANCIONES</u></p> <p>Los equipos o localidades participantes estarán obligados a jugar en todas las categorías o especialidades, debiendo presentarse los equipos completos. En caso contrario se considerará incomparecencia del equipo.</p>
--	---


	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	7 / 9

<p>Lehenengo ez agertzeak herria txapelketatik kanpo uztea ekarriko du.</p> <p>Pilotari baten legez kontrako parte-hartzea araudiz ez dagokion talde batean jokatzeko kontsideratuko da.</p> <p>Legez kontrako parte-hartzeari ez agertzearen trataera bera emango zaio, kasu guztietan.</p> <p style="text-align: center;"><u>Liga sistema</u></p> <p>Sailkapenerako norgehiagoka irabaztea 2 puntu eta galtzea puntu bat kontsideratuko da. Norgehiagoka bezala hiru partidak hartuko dira, alegia, kadetea, jubenila eta nagusia. Hartara, norgehiagokaren irabazlea bi edo hiru partida irabazten dituen herria izango da.</p> <p>Azken sailkapena egiteko garaian ez dira kontuan hartuko lehiaketa utzi edo uztera behartuta izan den taldeak jokatu norgehiagokak.</p> <p>Azken sailkapenean bi herriren arteko berdinketa balego, beraien artean jokaturako norgehiagoka guztietan partida gehien irabazi duen herriaren alde egingo litzateke.</p> <p>Berdinketa bi herri baino gehiagoren artean emango balitz, jarraian azaltzen diren arauak erabiliz (aurkezten diren ordenan) erabakiko da sailkapena.</p> <p>Arau baten aplikazioaren bidez talde guztien berdinketa hautsiko balitz, nahikoa izango da sailkapena egiteko.</p> <p>Berdinketa soilik talderen batekin hautsiko balitz, gainontzekoen sailkapena egiteko zerrendaren aurreneko irizpidera joko litzateke berriz ere.</p> <p>Irizpide guztiak aplikatuz berdinketa mantenduko balitz, zozketa bidez egingo da sailkapena.</p> <p>a) Berdinduta dauden taldeek elkarren aurka jokatu dituzten norgehiagoketako puntuen batura.</p> <p>b) Berdinduta dauden taldeek elkarren aurka jokatu dituzten norgehiagoketan partida gehien irabazi duen herriaren alde.</p> <p>c) Berdinduta dauden taldeek elkarren aurka jokatu dituzten partidetak aldeko eta kontrako tantoen alde.</p> <p>d) Berdinketa mantenduko balitz, liga osoan jokaturako norgehiagoketan partida gehien irabazi duen herriaren alde.</p> <p>e) Berdinketa mantenduko balitz, ligan jokaturako partida guztien aldeko eta kontrako tantoen kenketarik handiena.</p> <p>f) Azkenik, partida guztietan taldea ordezkatu duten pilotari guztien adinaren batz besteko gaztearen alde egingo da sailkapena.</p>	<p>La primera incomparencia acarreará la expulsión de la localidad del campeonato.</p> <p>Alineación indebida de los participantes se entenderá como la participación de algún pelotari en un equipo en el que reglamentariamente no podía hacerlo.</p> <p>La alineación indebida se tratará, a todos los efectos, como incomparencia.</p> <p style="text-align: center;"><u>Sistema de liga</u></p> <p>A efectos de clasificación se concederán dos puntos por encuentro ganado y uno por perdido. Por encuentro se entenderá los tres enfrentamientos, esto es, cadete, juvenil y senior. Así pues, la vencedora de cada encuentro será la localidad que venza en dos o tres de los partidos.</p> <p>Si un equipo abandona o se ve obligado a abandonar la competición, los partidos jugados por dicho equipo no se tendrán en cuenta a efectos de clasificación.</p> <p>Si en la clasificación final se produjera un empate a puntos entre dos localidades, la clasificación se resolverá a favor de la localidad que haya obtenido más victorias parciales en todos los enfrentamientos de liga entre ellas.</p> <p>Si el empate se produjera entre más de dos localidades, la clasificación se resolverá mediante la aplicación de las siguientes normas, tenidas en cuenta por el orden expresado, de forma que, si por aplicación de una se resolviera el empate entre todos los equipos, se tendrá por hecha la clasificación.</p> <p>Si sólo resolviera el empate con alguno de los equipos implicados, el resto comenzarían con la lista de normas desde el principio para determinar su clasificación.</p> <p>Si con la aplicación de todos los criterios persistiera el empate, éste se resolverá por sorteo.</p> <p>a) Por la suma de los puntos obtenidos en los encuentros jugados entre ellas, como si las demás no hubieran participado.</p> <p>b) Por la suma de victorias parciales en todos los encuentros jugados entre ellas, como si las demás no hubieran participado.</p> <p>c) Por la mayor diferencia de los tantos a favor y en contra en los partidos jugados entre ellas.</p> <p>d) Por el mayor número de victorias parciales en todos los encuentros habidos en el campeonato.</p> <p>e) Si persistiera el empate, se atenderá a la mayor diferencia de tantos a favor y en contra en todos los encuentros jugados en la liga.</p> <p>f) Por último, se establecerá teniendo en cuenta el menor promedio de edad de los participantes que hubieran representado al equipo en todos los partidos.</p>
---	--

	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	8 / 9

<p style="text-align: center;"><u>Kanporaketa sistema</u></p> <p>Hurrengo kanporaketa jokatzeko, partida gehien irabazten dituen herria sailkatuko da.</p> <p>Zesta-puntan edota eskuan berdinketa emango balitz, jarraian azaltzen diren arauak erabiliz (aurkezten diren ordenan) erabakiko da sailkapena:</p> <p>a) Berdinduta dauden herrien artean jokaturako partida guztietan, aldeko eta kontrako tantoen baturan emaitzarik onena duenaren alde egingo da.</p> <p>b) Berdinketak jarraituko balu, kadete kategoriako partida gehien irabazi duen herriaren alde egingo da.</p> <p>c) Berdinketak jarraituko balu, kadete kategoriako partidetan aldeko eta kontrako tantoen baturan emaitzarik onena duen herriaren alde egingo da.</p> <p>d) b) bezala baina jubenil kategoriarekin.</p> <p>e) c) bezala baina jubenil kategoriarekin.</p> <p>f) Partida guztietan herria ordezkatu duten pilotari guztien adinaren batz besteko gaztearenaren alde.</p> <p>g) Irizpide guztiak aplikatuz berdinketa mantenduko balitz, zozketa bidez egingo da sailkapena.</p> <p>Berdinketa palan (edo gomazko paletan) emango balitz, jarraian azaltzen diren arauak erabiliz (aurkezten diren ordenan) erabakiko da sailkapena:</p> <p>a) Berdinduta dauden herrien artean jokaturako partida guztietan, aldeko eta kontrako tantoen baturan emaitzarik onena duenaren alde egingo da.</p> <p>b) Berdinketak jarraituko balu, pala motzeko partida (edo binakakoa gomazko paletan) gehien irabazi duen herriaren alde egingo da.</p> <p>c) Berdinketak jarraituko balu, pala motzeko partidetan (edo binakakoak gomazko paletan) aldeko eta kontrako tantoen baturan emaitzarik onena duen herriaren alde egingo da.</p> <p>d) Berdinketak jarraituko balu, partida guztietan herria ordezkatu duten pilotari guztien adinaren batz besteko gaztearenaren alde egingo da sailkapena.</p> <p>e) Irizpide guztiak aplikatuz berdinketa mantenduko balitz, zozketa bidez egingo da sailkapena.</p>	<p style="text-align: center;"><u>Sistema de eliminatorias</u></p> <p>Para disputar la siguiente eliminatoria se clasificará la localidad cuyos participantes sumen más victorias parciales en los encuentros de ida y vuelta.</p> <p>En caso de empate en cesta o mano, la clasificación se resolverá mediante la aplicación de las siguientes normas, tenidas en cuenta por el orden expresado:</p> <p>a) A favor de la localidad con mejor resultado en la suma de los tantos a favor y tantos en contra de los partidos jugados entre las dos localidades empatadas.</p> <p>b) A favor de la localidad que haya ganado más partidos de la categoría cadete.</p> <p>c) A favor de la localidad con la mejor diferencia en la suma de los tantos a favor y tantos en contra de los dos partidos de la categoría cadete.</p> <p>d) Mismo que b), en categoría juvenil.</p> <p>e) Mismo que c), en categoría juvenil.</p> <p>f) A favor de la localidad cuyos participantes en los partidos jugados sumen menos años, meses y días.</p> <p>g) Si con la aplicación de todos los criterios persistiera el empate, éste se resolverá por sorteo.</p> <p>En caso de empate en pala (o paleta goma), la clasificación se resolverá mediante la aplicación de las siguientes normas, tenidas en cuenta por el orden expresado:</p> <p>a) La diferencia de la suma de los tantos a favor y tantos en contra de los partidos jugados entre las dos localidades empatadas.</p> <p>b) A favor de la localidad que haya ganado más partidos de pala corta (o de parejas en paleta goma).</p> <p>c) A favor de la localidad con la mejor diferencia en la suma de los tantos a favor y tantos en contra de los dos partidos de pala corta (o de parejas en paleta goma).</p> <p>d) A favor de la localidad cuyos participantes en los partidos jugados sumen menos años, meses y días.</p> <p>e) Si con la aplicación de todos los criterios persistiera el empate, éste se resolverá por sorteo.</p>
<p><u>11 – ERREKLAMAZIOAK</u></p> <p>Herri batek federazioak argitara emandako emaitza edota sailkapenetan akatsen bat dagoela uste badu, hamar eguneko epea izango du dagokion erreklamazioa aurkezteko, idatziz.</p> <p>Fase aldaketa edo kanporaketak egokitzen direnean, erreklamazioa amaitu berri den fasearen edo kanporaketaren</p>	<p><u>11 – RECLAMACIONES</u></p> <p>Si un pueblo estima que hay algún fallo en los resultados o las clasificaciones dadas a conocer por la federación, dispondrá de un plazo de diez días para efectuar la reclamación pertinente, que habrá que realizarse por escrito.</p> <p>En caso de cambios de fase ó eliminatorias, la reclamación habrá de efectuarse antes del miércoles posterior a la</p>



	GIPUZKOAKO HERRIARTEKO TXAPELKETA <i>TORNEO INTERPUEBLOS DE GIPUZKOA</i>	L-H-3 2026-02-02
	2024/06/25eko BATZAR OROKORREAN ONARTUTAKO ARAUDIA <i>REGLAMENTO APROBADO EN ASAMBLEA GENERAL 25/06/2024</i>	9 / 9

<p>ondorengo asteko asteazkena baino lehenago egin beharko da.</p> <p>Nolanahi ere, epez kanpo egindako erreklamazioek ez dute ondoriorik izango, nahiz eta elkarteak arrazoa zuela demostratu.</p>	<p>celebración de la última jornada de la fase ó eliminatoria concluida.</p> <p>En todo caso, las reclamaciones realizadas fuera de plazo no surtirán efecto, aunque quede demostrado que eran correctas.</p>
<p><u>12 – LEHIAKETA ETA DIZIPLINARI BURUZKOAK</u></p> <p>GEPFeren Lehiaketarako Epaille Bakarra da eskumena duen organoa txapelketa honetan lehiaketari buruz gertatzen diren gorabehera guztiak jakiteko.</p> <p>Hartara, gai honen inguruan sortzen diren auziak, GEPFeren Lehiaketarako Epaille Bakarrak erabakiko ditu, araudi honetan jasotakoa betez; eta araudi honetan jaso gabe dauden kasuetan, beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia bilduz ebazpena eman aurretik.</p> <p>GEPFeren Lehiaketarako Epaille Bakarrak hartzen dituen erabakiekin amaitutzat ematen da federazio bidea, eta errekursorik aurkeztu nahi izanez gero, Euskadiko Kirol Justiziaren Batzordera jo beharko da.</p> <p>Torneo honetan gertatzen diren diziplina auziak GEPFeren Diziplina Batzordeak aztertuko ditu, GEPF beraren Kirol Diziplina Araudia eta aplikagarriak diren zuzenbide zibileko arauak aintzat harturik.</p> <p>GEPFeren Diziplina Batzordeak hartzen dituen erabakiak dagokion organoaren aurrean inpugnatu ahal izango dira.</p>	<p><u>12 – ASPECTOS COMPETICIONALES Y DISCIPLINARIOS</u></p> <p>El Juez Único de Competición de la FGPV es el órgano competente para conocer cuántos asuntos se susciten durante el presente Torneo y que versen sobre aspectos competicionales.</p> <p>En estos casos, el Juez Único de Competición de la FGPV resolverá cuantos litigios o asuntos se susciten conforme a lo previsto en este Reglamento y, en lo no previsto, teniendo presentes los principios informadores que considere que resultan de aplicación en relación con cada supuesto.</p> <p>Las decisiones del Juez Único de Competición de la FGPV, que agotan la vía federativa, serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva.</p> <p>Los aspectos disciplinarios que surjan en el transcurso del presente Torneo serán abordados por el Comité de Disciplina de la FGPV teniendo presente el Reglamento de Disciplina Deportiva de la FGPV y demás normas de derecho público que resultan de aplicación.</p> <p>Las decisiones del Comité de Disciplina de la FGPV serán impugnables ante el órgano competente.</p>